

## PRENTSARAKO OHARRA

18/10/10

### **Batzar Nagusiek ez dabe onetsi “bakarrik doazan emakumeentzako nahierarako geralekuen” zerbitzua gizarteko beste sektore batzuetara zabaltzea**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak ez dau onetsi gaur goizean Talde Mistoak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena. Proposamen horretan, “Bizkaibuseko autobusetan hasiera batean herritarren sektore jakin batzuentzat jarritako segurtasun neurrien eskaintzea edozein bidaiarientzat izatea” eskatzen jakon Foru Aldundiari.

Batzarretako talde guztiak, proposamena aurkeztu dauen taldeea izan ezik, neurri horren kontra agertu dira, ekimenak emakumeei jagoken genero indarkeriaren arazoa “ikusezin” bilakatzen dauela esanez.

Proposamena defendiduteko orduan, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak adierazo dau neurri hori ezarrita dagola daborduko Estaduko beste leku batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan. Aldecoaren eretxiz, helburu nagusia “arazo bereziren bat daukan edozein personak, azkenean, gidariari laguntzea eskatzeko aukerea izan daian beharrean gagozala jakitea da”.

Halanda be, Talde Mistoak talde guztien ezezko eretxia aurkitu dau. “Arauz Besteko Proposamena irakurrita, argi eta garbi ikusten da ez dauela ulertu zertarako ezarten dan neurri hori”, adierazo dau Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak. Bere eretxiz, Talde Mistoaren proposamenak, “matxismoa gu hiltzen ari dan gizarte patriarkal honetan jasaten ari garen arazoa ikusezin bilakatzea gura dau”.

Ildo berean, Jesús Isasi batzordekideak gogoratuazo dau “neurri horreek lehen aldiz ezarri dirala hemen lurralde handi batean, eta emakumeenganako indarkeriaren kontra doazala, beste barik”.

EH Bilduko Zigor Isuskiza batzordekidearen eretxiz, proposamena “bonberada” bat da. Isuskizak bat egin dau generako bozeroaleakaz, proposamenak “geraleku horreek eratzeko errazoa indar barik izten dauela” gehituz.

“Oso egoera jakin baten ganean ari gara berbetan, bere generoa dala eta oso indarkeria mota zehatza jasaten dauen sektore baten ganean”, azaldu dau Ekain Rico bozeroale sozialistak. Batzar Nagusiek aho batez onetsi eben Arauz Besteko Proposamena, bozeroaleak adierazo dauenez “ibilpideetan garraio publiko zerbitzuak indarkeria matxistaren, erasoen eta emakumeen kontrako eraso sexualen aurka inpliketan jarraitzeko gure harea aletxoa dala” aitatur.

Unai Lerma batzordekide jeltzalearen eretxiz, “ez da bidezkoa zerbitzu hori orokor bilakatzea edo beste zergaiti batzuetara zabaltzea”. Lermak azpimarratu dauenez, “une honetan jagokuna, esperientzia pilotu hori aurrera eroatea da, eskintzen dan zerbitzua

emakumeen kontrako indarkeria ekintzen murrizketan laguntzeko zein neurri aldatu behar diran jakin ahal izateko”.

Eztabaida horren aurretik, Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatu batzordera etorri da, Talde Mistoak eskatuta, Bizkaibusen “bakarrik doazan emakumeentzako nahierako tarteko geralekuen” zerbitzua zelangoa izango dan zehazteko. Hiru hilebeteko iraupena izango dauen proba pilotu hori joan dan urriaren 5ean jarri zan martxan A3136 Bilbo-Santurtzi, A3519 Bilbo-Mungia eta A3932 Etxebarri–Galdakao lineatan.

Zerbitzua gaueko 22:30etik goizeko 06:00ak arte egongo da erabilgarri hiru linea horreetan. Geraleku bat eskatzeko, emakume erabiltzailea, gidariari jakinarazo eta aurrekaldeko jarlekuetan jarri beharko da. Gidariak egoki deritzonean, emakume erabiltzailea autobusaren aurrekaldeko atetik jaitsiko da. Ezarritako ordutegiaren barruan hiru ibilpide horreek egingo dituen autobus guztiek, “bakarrik doazan emakumeentzako tarteko geraleku zerbitzua” eskintzen dabela adierazoten dauen kartela eroango dabe ibilgailuaren aurrekaldean. Ibilgailu barruko paneletan be emongo dabe horren barri.

Talde guztiak pozik agertu dira Batzar Nagusi osoen aho bateko konpromisotik sortutako neurri hori martxan jarri dalako. Horrez gain, proba pilotua bukatu ostean, taldeen aurrera etorteko eta haren balantzea egiteko eskatu deutsie Aldundiko arduradunari, etorkizunari begira konpondu daitekezan erroreak hauteman ahal izateko.

## **BARIK ETA IKUSTEKO GAIZTASUNAK DITUEN PERSONAK**

Miguel Ángel Gómez Viar Foru Diputatuak, Podemos Bizkaiak eskatuta, ikusteko gaitzasunak daukiezan personek euren Barik txartelaren saldoa zein dan jakin daien bere sailetik indarrean jarri diran neurriak azaldu ditu.

BGP-CTBgaz batera egon daitekezan aukerak aztertu ostean, aukerarik onena “saldoa hotsezko informazioaren bitartez jakinarazotea, saldo hori aplikazino mobikorrera bialduz” dala ondorioztatu eben. Zehaztu dauen moduan, ikusteko gaitzasunak daukiezan erabiltzaileek, euren Barik txartelaren saldoa “modu autonomoan eta pribaduan” kontsultetako neurriak ezarri dira, NFC BARIK APParen bitartez.

NOTA DE PRENSA

10/10/18

## **Las Juntas Generales rechazan extender el servicio de “paradas a demanda para mujeres solas” de Bizkaibus a otros sectores de la sociedad**

La Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado esta mañana una Proposición No de Norma presentada por el Grupo Mixto en la que se solicitaba a la Diputación Foral de Bizkaia “la extensión a cualquier persona viajera en los autobuses de Bizkaibus de la oferta de medidas de seguridad que se implanten en los mismos destinadas inicialmente solo a sectores concretos de la población”.

Todos los grupos junteros, a excepción del proponente, han mostrado su rechazo a esta medida alegando que la iniciativa “invisibiliza” una problemática de violencia de género que afecta a las mujeres.

En defensa de su propuesta, el portavoz del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha manifestado ésta se trata de una medida que ya se ha implantado en otros territorios del Estado y de otros países europeos. Para Aldecoa el objetivo de fondo es que “cualquier persona que tenga una problemática especial sepa que, al final, trabajamos para que pueda solicitárselo al conductor”.

No obstante el Grupo Mixto se ha topado con la negativa de todos los grupos. “Leyendo esta PNN deja en evidencia que no ha entendido para que se está implantando esta medida”, ha declarado la apoderada de Podemos Bizkaia Nuria Atienza. En su opinión, la propuesta del Grupo Mixto “quiere invisibilizar un problema que tenemos en esta sociedad patriarcal donde el machismo nos está matando”.

En la misma línea, el apoderado popular Jesús Isasi, ha recordado que “estas medidas se implementan aquí por primera vez en un territorio grande, y van contra la violencia de las mujeres, simple y llanamente”.

El apoderado de EH Bildu, Zigor Isuskiza, ha calificado la propuesta de “bomberada”. Isuskiza ha suscrito las palabras del resto de portavoces añadiendo que la propuesta “desvirtúa la razón por lo que fueron creadas estas paradas”.

“Hablamos de una situación muy concreta, de un sector que sufre una violencia muy concreta por razón de su género”, ha explicado el portavoz socialista, Ekain Rico. Haciendo referencia a la PNN aprobada por unanimidad por las Juntas Generales, el portavoz ha manifestado que éste “es nuestro granito de arena para continuar implicando a los servicios de transporte público en la lucha contra la violencia machista, contra el acoso y contra las agresiones sexuales a mujeres durante los trayectos”.

Para el apoderado nacionalista Unai Lerma “no procede plantearse la generalización o abrir el servicio a otras casuísticas”. Lerma ha insistido en que “el momento en el que estamos actualmente es en el de llevar a cabo esa experiencia piloto que tiene el objetivo

de conocer en qué medida hay que modificar el servicio que se presta para colaborar en la disminución de los actos de violencia contra las mujeres”.

A este debate le ha precedido la comparecencia del Diputado Foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio. Miguel Ángel Gómez Viar ha detallado, a petición del Grupo Mixto, cómo ha sido la implantación del servicio “paradas intermedias a demanda para mujeres solas” en Bizkaibus. La implantación de esta prueba piloto que tendrá una duración de tres meses, tuvo lugar el pasado 5 de octubre en las líneas A3136 Bilbao-Santurtzi, A3519 Bilbao-Mungia y la A3932 entre Etxebarri y Galdakao.

El servicio estará disponible en esas tres líneas desde las 22:30 de la noche hasta las 6:00 de la mañana. Para solicitar una parada, la usuaria deberá notificárselo al conductor y sentarse en los asientos delanteros. Cuando el conductor estime oportuno, la usuaria descenderá por la puerta delantera del autobús. **Todos los autobuses que realicen esos tres recorridos en el horario determinado por el servicio llevarán, en la parte delantera del vehículo un cartel en el que se especifica que ofrece un “servicio de paradas intermedias para mujeres solas”.** También lo notificarán en los paneles del interior del vehículo.

Todos los grupos se han congratulado de la puesta en marcha de una medida que parte del compromiso unánime de toda la Cámara. Asimismo, han solicitado al responsable foral que, una vez finalice la prueba piloto, comparezca ante los grupos para realizar un balance de la misma y así poder detectar errores que puedan subsanarse para un futuro.

#### **BARIK Y PERSONAS CON DISCAPACIDAD VISUAL**

El Diputado Foral Miguel Ángel Gómez Viar ha explicado también, a petición de Podemos Bizkaia, las medidas que desde su departamento se han llevado a cabo para que las personas con discapacidad visual puedan conocer el saldo de su tarjeta Barik.

Tras analizar las distintas posibilidades junto con CTB, concluyeron en que la mejor opción es la de “notificar el saldo a través de la información acústica enviando este saldo a su aplicación móvil”. Como ha detallado, se han implantado medidas para que los usuarios con discapacidad visual consulten el saldo de su barik “de manera autónoma y privada” a través de la APP NFC BARIK.